

e) Bertso-papera argitaratzen danean, eta jakiteko zein dan bertsolari egillearen izena, "Bertso berriyak urliyak jarriyak" edo beste alako zerbait ipiñi bear da aspaldiko oiturari segituaz.

f) Juzgua emango duen juradua Gipuzkoako Aharro Kaxa Probintzialak izendatuko du Euskal Akademiaren eskabidez.

g) Sariak Donostian emango dira bertsolarien jai edo txapelketa batean.

LAU BERTSO PAPEL SARITU DIRA BERTSOLARIEN KLASEAN EGIÑAK

Donostiako Diputazioan batzarre bat egin dute bertso papelen txapelketa erabakitzeko izendatu zan juradukoak eta ao batez erabaki batera eldu dira.

Lendabiziko saria amabi bertsokin osatutako bertso papel batek irabazi du Jesus Lete "Ibai-ertz" Isasondo-koak egiña.

Bigarrena Sebastian Salaberria-k ama euskerari jarritako amabi bertsokin.

Irugarrena Manuel Uranga k ama alargun bati paratutako amar bertsokin.

Eta laugarrena Basilio Pujana Zeanuri-ko seme Bilbon bizi danak amabost bertso dituen papel batekin.

Juradua urrengo jaun avek osatu dute: Manuel Lekuona, Fernando Artoia "Bordari", Juan Maria Lekuona, Juan San Martin, Aita Antonio Zabala Jesusen Konpañiakoak, Antonio Arrue, Aita Martzelo Andrinua pasionista, Pedro Diez de Ulzurrun medikua eta Alfonso Irigoyen.

Ernani-n Txirrita zanari 1963 maiatzaren 12-an egin zitzaion omenaldian partitu ziran sariak dira: lendabizikoari bi milla pezeta. Bigarrenari milla ta bosteun. Irugarrenari milla. Eta laugarrenari bosteun.

ORIXE ZANAREN GORAZARREZ IPINTZEN DIRAN AURREN IPUI SARIKETA ETA POESIA SARIAREN OIÑARRIAK

1. Aurren ipui sariketara amabost urte oraindak egin gabe daudenak bialdu ditzakete lanak.

2. Iru sari emango dira. Lendabizikoa bosteun pezetakoa, bigarrena iru-reunekoa, eta irugarrena berreunekoa.

3. Euskeraz egindako ipui bat bialdu bear da.

4. Poesia sari bi emango dira, lendabizikoa iru milla pezetakoa, eta bigarrena milla ta bosteunekoa, eta nai duten guztiak bialdu ditzakete lanak.

5. Bialtzen diran poesia lanak nai dan bezelako luzeera eta gaia izan dezakete eta bertsotan euskeraz egiñak izan bear dute.

6. Sariaketa bien juradua Euskaltzaindiak izendatuko du.

7. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6. Bilbao) 1963 irai-

Ilaren 15-a baño leen. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza ondo estalduta lanari josi.

8. Sariak Tolosa-n emango dira iraillaren 29-an.

GABRIEL ARESTI ORIXE ZANAREN GORAZARREZ IPIÑITAKO POESIA SARIAREN IRABAZLE

Tolosa-n festak eta sari emateak izan ziran

Inbat lan artu ziran sariketarako eta erabakia artzeko juradu bat izen-datu zan jaun auek osatzen zutela: Antonio Arrue, Antonio Maria Labayen eta Jose Antonio Loidi. Lanak zeatz irakurri ondoren erabaki au artu dute: lenengo saria Gabriel Aresti-ri ematea "Harri ta herri" titulua duen poemagatik; bigarrena Jose Maria Aranalde-ri "Jainko aurpegia gurean" lanagatik; eta irugarrena Lukax Dorronsoro-ri "Bizia" obragatik.

Ipui sariketa uts gelditu zan eta orregatik, iru sari artu zituzten poetak.

Sariak iraillaren 29-an, igande egunez, eman ziran Tolosa-n. Au dala-ta Ooargi-koak egun aundi bat prestatu zuten "Orixé" Nikolas Ormaetxea zanaren omenez ainbat jai eta festa ospatuz, inguru artan baitzituen gure gizon aundiak erroak, Gipuzkoa ta Nafarroa bitartean, Oresa ta Huizi-n.

AGUSTIN ZUBIKARAY 1963 TORIBIO ALZAGA TEATRO SARIAREN IRABAZLE. LUIS MITXELENA 1962 URTEKO "PREMIO DE LITERATURA CAJA DE AHORROS VIZCAINA"-RENA

Euskal Akademiak Bizkaiko Ahorro Kaxaren laguntasunarekin Toribio Alzaga teatro sarirako deia egiña zeukan. Juradukoak, Antonio Arrue, Eusebio Erkiaga eta Juan San Martin jaunak, ikusi dituzte jasotako lanak eta saria "Iru Alaba" titulua duen obrari ematea erabaki dute eta Agustin Zubikaray zala egillea ikusi da.

Agustin Zubikaray beste lan baliotsu batzuen egillea ere bada eta teatro talde baten zuzendari trebea gaiñera, maiz erakutsi izan duen bezela ondarrutarrak Euskalerriko erri askotan saioak egin dituztenean. Bilbon batez ere fama aundia irabazi du. Euskalerrian argitaratzen diran zenbait aldizkaritan ere ematen ditu bere lanak.

Datorren urterako "Domingo Agirre" novela sarira deitzen da orainarteko oiñarri berberekin. Gaiñera, ain zuzen ere, Domingo Agirre zana jaio zanaren eun urte betetzea da eta baita euskal filologo aundia izan zan Resurrezio Maria Azkue-koarena ere. Lanak bialtzeko epea 1964 uztaillaren 20-an bukatuko da.

Saria azaroaren 25-ean eman zitzaion Bilboko Biblioteka Munizipalean. Egun ortan gorazarre bat egin zioten Bizkaiko Kultura Batzarrekoak Iturribarria